

ZUZENDARITZA EKIPO BERRIAREKIN BILERA LAKUA - 2017-03-28

Justizia Saileko ordezkari batzuk agertu ziren bilerara, besteak beste Miren Gallastegui Justizia Sailburuordea, Amparo López Justizia Administrazioako Zuzendaria eta Igor Salazar aholkularia. Hitza hartzen lehena sailburordea izan zen. Horren esanetan, batzarrarekin lortu nahi zutena zen sindikatuen proposamenak jasotzea, negoziagai izan zitezkeen kontuen inguruan. Haren aburuz, langileok gara justiziaren muina eta, elkarrizketarako jarrera ezin hobea erakutsita, laster deituko gintuztela agindu zuen.

Txanda egokitu zitzaionean LAB pozik agertu zen sailburuordearen hitzak zirela-eta. Hala ere, **gogorarazi behar izan genien benetan balio dutenak ekintzak direla**. Eta horrezaz gain, **agerian jarri genuen egungo zuzendariak sinatu dituen azken ebazpen guztiak prebarikaziotik oso hurbil daudela, hortaz aurreko sailaren ildo beretsuan segitzen dugula, ez bada okerragoan**. Zuzendariak arrazoa genuela onartu zuen eta barkatzeko eskatu; hori dela eta ba omen dauzkate hainbat kontu mahai gainean geldirik aztertu nahi dituztelako ahalik eta erantzunik egokiena eman nahaian.

Hona hemen hizpide izan genituen gai-zerrendako kontuak:

AUZITEGI MEDIKUAK

Zuzendariak telefonoz aurreratua arabera, **lan-taldeak osatu nahi zituzten** kontu batzuk esparru txiki eta eraginkorretan jorratu ahal izateko. Hain zuzen formula horretantxe sartuko zuten auzitegi medikuen gaia.

LABek nabarmendu zuen auzitegi medikuen errebindikazioa eztabaidatuta dagoela, Eusko Legebiltzarrean bertan eztabaidatuta ere; eta han PSEren bozka jaso zuela parekidetasuna eta gatazka konpontzearen alde. Auzitegi medikuen aldarrikapenak babesteko asmoz Sabin Etxe aurrean egindako elkarretaratza ere joanak zirela gogorarazi genien. Hitz bitan, **kontu honek ezin digula ezta minutu bat gehiago ere ebatsi eta Legebiltzarrean bozkatutakoarekin bat ebatzi beharko dutela**. LABen konpromisoa: langile hauen errebindikazioak azken aldiz igortzea, sailak hurrengo negoziazio-mahaian arazoa burututzat emango duelako esperoan.

2012ko APARTEKO LANSARIA

Bere garaian esan bezala, justiziako langile guzti-guztiek kobratu behar dute, errekurritu zein ez. Eta halaxe gertatu da: sail berriak erabaki baitu gu guztioi ordaintzea, itxaron beharrik gabe Eusko Jaurlaritzako gainerako langileek paga osorik kobratu arte. Sailburuordearen esanetan, gobernuak ez zuen ordaindu gabe utzi behar izan 2012ko apartekoa, hau bezalako kasu argian eta hainbat epai aldeko duena. Hark esandakoaren arabera, izapide denak eginak dituzte, Gobernu Kontseiluan onartzea salbu. Hortaz, aurreikusten dute udaldia baino lehen aparteko saria zein nominaren aurrerapenak erregularizatzea.

ERREGISTRO ZIBILA

Eusko Legebiltzarrean María Jesús San José Sailburuak egindako eskaerak zerrendatzea besterik ez zuten egin: erregistro zibila publikoa eta doakoa, lanpostu guztiak barne. Orduko hartan LABek aurpegiatu egin zion sailburuari –idazkariaren bidez- ez zuela eskatu erregistro zibilari ostutako funtzio guzti-guztiak berreskuratzea; hortaz, nekez mantendu daitezkeela lanpostuak, zerbitzuari dagozkion funtzioak desagertuta. Horrekin batera ere adierazi genion ez zuela erreklamatu betearazpen eta kudeaketa eskumena ere. Gauzak horrela, **eskatu genien erregistro zibiletatik kendutako funtzio guztiak erreklamatzeko, bestela berandu baino lehen bake epaitegiak deuseztatuko dituztela ikusi beharko dugu.**

DONOSTIAko BJB

Garaiko orrian informatu egin genuen ezin zezaketela burutu Donostiako BJB legezgoak ziren izapide guztiak ez zituztelako egin. Era berean, bagenien maiatzaren 18ko bileran bulego berria sartu zuela gai-ordenean Uriarte zuzendariak auzitegi medikuen gatazka bigarren maila batean uzteagatik, pil-pilean zegoen eta egunero kalean zeudelako protestan, “nahiz eta badakien legealdi honetan ez dagoela ezartzerik”. Eta beste hau ere bai: “auzitegi osagileen gatazka Bizkaian erabakitzen zela jakitun, Gipuzkoako bi kontu sartu zituen Uriartek sindikatuak endredatu nahian eta esan ahal izateko prentsari beste gaiak negoziatzen jarraitu zuela”. Negoziazio mahai hartatik ordezkari den-denak altxatu zituen sindikatu bakarra LAB izan zen. Eta gaur egun are agerikoagoa da erakunde sindikalak erabili zituela aurreko zuzendaritzak. **Hain zuzen, sail berriak negoziazioan izapideak ez baitziren bete eten du BJB. Aurreko sailari bidalitako alegazioetan sindikatu honek BJB negoziatzen jarraitzeko eskubidea aldarrikatu zuen eta, antza denez, une hori heldu zaigu.**

LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

Berriazko lan-taldea osatu behar dute lizentziak eta baimenak atalaren gaineko instrukzioak berrikustatzeko; sailaren esanetan, gaur arte administrazioak izan dituen jarduketak hobetze aldera. LABek ez du ulertzen zergatik bildu behar dugun zuzendaritzarekin indarrean dauden lizentziak eta baimenak Administrazio Orokorreko langileei ezartzen zaizkien era bera guri aplikatzen has daitezzen. **Beharrezkoa den bakarra da zuzendaritzaren agindu bat hori bete dadin. Baina, badirudi erresistentziak topatzen ari direla ekipo teknikoan irizpide berriak praktikan jartze orduan. Horren ondorioz, sailak sindikatuekin lan egin nahi du eta interpretazio bakarra duten argibide batzuk prestatu.**

ORDAINSARIAK

IV Akordioarekin bat datozen gaietaz hitz egin eta ahal den guztia egiteko prest omen daude; hau lehentasunezko kontua izango dela eta ahalik eta lasterren deituko gaituztela esan zuten. **LABek eskatu zuen HOMOLOGAZIOARI ekiteko behingoz, Eusko Jaurlaritzako gainerako langileekin egin zen eran.** Gai honekiko gure asmoa da, lehendabizi negoziatu, gero adostu eta azkenik IV Akordioan egokitu, berau betetze zati gisa.

DATOZEN BILERAK

Bilera bi mota izango dira: lan-taldeak eta negoziazio mahaia; hori dela eta, esparru bakoitzean jorratu nahi ditugun gaiekin zerrenda bat eskatu ziguten. Oro har LABek negoziazio batzarrak lehenesten ditu eta horrelaxe jasotzeko eskatu genuen. Dena den eta oraingoz, honako kontu hauetan gauzatuko lirateke esandako bilerak:

Lan-taldeak:

- lizentziak eta baimenak;
- bitarteko langileen lan-poltsak;
- ordutegi instrukzioa eta guardiak;
- lana eta norberaren bizitza bateratzea.

Negoiazio- mahaia

- auzitegi medikukak;
- ordainsariak.

BESTELAKO KONTUAK

- EPE dela-eta **zenbait titularrek eszedentzia hartuta ez dute plaza beteko**. Horren ondorioz, **bitarteko langile batzuek eskatu diote sailari ez behartzeko opor eta bestelako egunak hartzera**. LABek eskaera hori babestu du. Kontua da ezinbestekoak diren eragozpenak, ez besterik, eragin diezazkietela nahi dugula.
- **Barakaldoko erregistro zibilean duela gutxi izendatutako errefortzua mantentzeko exijitu genuen**. Izan ere, **lehendabizi langilea mehatxatu eta gero lanpostutik bota zuten, senidea zaintzeko lanaldi murriztuan lan egiteagatik**. Bien bitartean, zerbitzuan atzerapen handiekin jarraitzen dute: gutxi gorabehera 5.000 bat inskripzio daude osatu barik. Administrazioak ezin dezake beste langile bat kontratatu lege kontrakoa izango baitlitzateke pertsona bat zesatu eta beste bat izendatu zeregin berberak egiteko.
- Mahairatu genuen beste kontu bat izan zen **sailaren jauntxokeria: egin eginda zituztela jakinda ez dituzte hainbat guardia ordaindu; EIZUn erregistratu dituzte eskatu gabeko baimenak...** Hauek gehiegikeria guztiak direla-eta lizentziak eta baimenak eskatzeko orritik “hasiera eta amaiera” izeneko eremua kentzeko eskatu genuen. Horren arrazoia da eskatzen diren egunak banan banan eta ondo argi idatzi arren, Lakuan nahi dutena egiten dutela.
- **Tutoretza ereduan aldaketak egiteko premia** nabarmendu genuen; ordainketan ez ezik, irakastea lan ordutegi barruan egiteko eskatu genuen. Ez da erraza topatzea lankide heldu berriak prestatzeko prest dagoenik; eta, bestalde, gero eta langile gehiago daude prestakuntza hori behar dutenak. Horrek dakarrena da bulegoetan atzerapenak gertatzea eta, ez gutxitan, zerbitzuak behar bezala ez funtzionatzea.
- Beste eskabide edo ohartarazpen bat egin zuen LABek: **bitarteko langileak zaintzea**. Eta horretarako gure proposamena izan zen lan-poltsetako araua berrikustea. Gure ustez, bitarteko langileek Justizia Administrazioan jarrai dezaten baldintza berriak sartu behar dira. Hori egin ezik langile hauek beste administrazio batzuetara alde egingo dute; izan ere gaur egun gertatzen ari da hori. Batzarran komentatu genuen moduan, **oker handia izango litzateke langileak galtzea**.

Bada, hauxe da bileran gertatu zena. Espero dugu lanean jarraitzea eta zuzendaritza ekipoaren (sailburuordea, zuzendaria eta aholkularia) hitz politikak eta jarrera positiboa egia bihurtzea.

2017-04-03